



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION



Mendi eta Eskalada  
Kiroletan Nafar Federakundea  
Federación Navarra de  
Deportes de Montaña y Escalada

# 2025KO EMF ETA MEKNF AREN PROBA OFIZIALEN DEIALDIA

## MENDI LASTERKETAK

- EUSKAL HERRIKO LINEAKO LASTERKETA KOPA
- EUSKALHERRIKO LASTERKETA BERTIKALEN KOPA
- EUSKAL HERRIKO ULTREN KOPA



EMF-k eta MEKNF-k hasi behar dugu planifikatzen 2025ko Mendiko Lasterketen lehiaketa-proben 2025. edizioa, linea, bertikal eta ultra modalitateetan.

Deialdi honen bidez, datorren urterako antolakuntza-proposamena aurkeztera animatzen zaituztegu, horrela, 2025ko Mendiko Lasterketen Proba Ofizialen baterako egutegia egin ahal izateko.

Kopetako hiru modalitateen deialdia da: lineakoak, bertikalak eta ultrak. Proposamenaren helburua da antolatzaile gisa zuen laguntza izatea, zirkuiturako proba egokienak eta onenak izan ditzazuen.

\*EMF-ren partez jakinarazten dizuegu EMFren Mendiko Lasterketen Erregelamendu Ofizialean aldaketak egin direla txapelketen eta kopen formatu klasikoaren alde egiteko, baita kategoriei eta arbitrajeko xehetasunei buruzkoak ere.

\*Era berean, EMF-k, MEKNF-k edo kontrol-oinarri gisa EMF/MEKNF-ren Mendi Lasterketen Erregelamendu Ofizialaren enuntziatua erabili nahi duen proba orok idatziz eskatu beharko du dagokion baimena, eta baimena eman arte itxaron beharko du..

## OHAR OROKORRAK

Euskal Herriko lurralde guztietan mendiko lasterketak egitea da helburu nagusietako bat. 2025rako, hiru modalitateetako (linea, bertikalak eta ultra) kopa-probetarako egiten da deialdia. Hautatutako proba bakoitza bere modalitateko kopan sartuko da 2 urtez, salbuespen hauetan izan ezik:

1. Probaren antolatzaileak bere karrera zirkuitutik kendu nahi izatea
2. Nafarroako lasterketak beren federazioko mendiko lasterketen batzordearen erabakia izanen da nork bere kopetan hautatu eta zenbat denborarako izanen dituen. Beraz, haiek izendatuko dituzte modalitate bakoitzeko lasterketak eta lehiaketa bakoitzean emandako denbora.
3. Lasterketek zuzendu egin beharko dituzte proba lehendabiziko edizioan akatsak, hutsuneak eta beharrak. Arbitraje Batzordeak jakinaraziko ditu, ekitaldia egin ondoren, lasterketa-aktaren bidez. Akats horiek zuzentzeko behar diren jarduketak ez egiteak kopatik kanporatzea ekarriko du.

## Antolatzaileen betebeharrak:

- EMF/MEKNF-ren Mendiko Lasterketen Egutegi Ofizialera aurkezten diren probak mendi-federazio bateko kide diren klub edo entitateek antolatu beharko dituzte, edo, betiere, proba egiten den lurraldeko klub edo federazio baten laguntza edo babesa izan beharko dute.
- Astebete lehenago aurkeztu beharko da lasterketan parte hartzen duten federatu gabeko pertsonentzako kontratatutako aseguru-poliza.
- Antolatzaileak izena emateko epea amaitzen duenean eta izena eman dutenen zerrendak federaziora bidaltzen dituztenean, ezin izanen da beste kirolaririk sartu eta ez da kontuan hartuko proba ofizialerako.
- Antolatzaileak izena eman dutenen zerrenda eman beharko du, izen-emateak itxi eta berehala, ahal bada lasterketa baino hiru egun lehenago, Euskadiko eta Nafarroako lasterkari federatuak egiaztatzeko. Halaber, sailkapenak beranduenez probaren ondoko egunean aurkeztu beharko dira, bi federazioek eskatzen duten formatuan eta behar diren datuekin. Dokumentu hori antolatzaile bakoitzari emango zaio bere momentuan.
- Antolatzaileek uneoro errespetatuko dute EMF/MEKNF-ren protokolo ofiziala (aurkezpen-ekitaldia, sari-banaketa, etab.). Halaber, EMF/MEKNF-ren eta EH Koparen logotipo ofiziala behar bezala ikusarazi behar dute beren probaren publizitatean eta webgunean.
- Sariak emateko zeremonian, antolatzaileek eta federazioak erabakiko dute zein ordenatan banatuko diren, kopakoak, ahal izanez gero, lehentasuna emanen zaie federazio sariari.
- Antolatzaileek beren karrerak ingurumenarekin ahalik eta jasangarrienak izateko konpromisoa hartuko dute, eta, horretarako, marka berrerabilgarriak, biodegradagarriak edo konpostagarriak bilatuko dituzte. Behin bakarrik erabiltzeko plastikoa kentzeko konpromisoa hartuko dute, batez ere horniduretan, eta positiboki baloratuko dira lasterketak egiten dituzten ekimen eta berrikuntza guztiak, ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izan dezaten.
- EMFk lehentasuna emango die kirolari federatuen parte-hartzea soilik onartzen duten lasterketei. Federatu gabeko lasterkariek parte hartzea onartuko da, eta antolatzaileek nahitaez egin beharko diete istripu-asegurua eta erantzukizun

zibileko aseguruak. Era berean, federatu gabeko lasterkari horiek lasterketaren sailkapen orokorrean agertu ahal izango dira, baina ez dira sailkapen ofizialetan sartuko, eta ezingo dute EMF / MEKNF-ren bidez emandako sari eta trofeorik jaso.

- EMF-ren Mendiko Lasterketen Egutegi Ofizialean sartzen diren lasterketei buruzko informazioa diseinatzeko, antolatzaileek proben ibilbideko GPSa emango diote EMF / MEKNF-ri (GPX formatuan).
- Erakunde antolatzailea arduratuko da irteera eta helmuga antolatzeaz: irteera- eta helmuga-arkuak, publizitate-hesiak, karpak, ekitaldietarako eta trofeoak emateko podiuma, irteera-kontrola eta megafonia.
- Antolatzaileak arduratuko dira arbitroen ostatua eta mantenua kudeatzeaz eta bilatzeaz, eta ahaleginak egingen dituzte lasterketa-lekutik ahalik eta hurbilen egon daitezen, arbitro-eginkizunak behar bezala bete ditzaten.
- 500 euroko ekarpen ekonomikoa (linea eta ultra) eta 300 eurokoa (bertikala), honako hauen zati bat ordaintzeko:
  - Material komuna: markajea, karpak, koparen irudia.
  - Arbitrajearen kostua.
  - Lasterketen irudia eta propaganda.
  - Sariak.

## Ingurumenarekin lotutako betebeharrak:

- Ibilbidearen seinaleztapena seinale berrerabilgarrien bidez egin beharko da.
- Hornitze-puntuetan berriz erabiltzeko edalontziak erabili beharko dira nahitaez, edo lasterkari bakoitzak bere edalontzi pertsonala erabili beharko du.
- Proba egin ondoren, 24 orduetan jaso beharko da markajea.

## EHK-ren betebeharrak:

- Klubetara eta gure euskarri digitaletan zabaltzea.
- Lehiaketarako arbitroak.
- Materiala:
  - Helmugako arkuak eta erlojua (bi elementu horiek batera uzten dira)



- Karpak
- *Walkie Talkies*
- Koparen web atal eksklusiboa sortzea, lasterketa bakoitzari buruzko informazioa eta zuzeneko esteka dituen.
- Eskatzen diren ingurumenaren aldeko ezaugarriak betetzen dituen behin-behineko markajea emanen da.
- Kronometraje-enpresa bat eskainiko da, antolatzaileen eskura. EHKk hitz ematen du bitartekari-lana egingo duela lasterketetarako baldintza onuragarrienak lortzeko. Kontratazio hori ez da nahitaezkoa izango.

## IRUDI UNIFORMEA LEHIAKETETAN

- EHK arduratzen da bere egutegi ofizialean agertzen diren proba guztien publizitateaz. Horretarako, sare sozialak, web orriak eta posta elektronikoz Mendiko Lasterketen Egutegi Ofizialeko klubei egiten zaizkien bidalketa masiboak erabiltzen ditu.
- EMF/MEKFNren Mendiko Lasterketen Egutegi Ofiziala eta proba bakoitza ahalik eta gehien zabalduko direla bermatzeko, bi federazioetako Komunikazio Arloak prentsa-oharrak bidaliko dizkie Euskal Herriko komunikabide garrantzitsuenei. Proba bakoitzaren aurretik eta ondoren jakinaraziko da.
- EHKk, Komunikazio Arloaren laguntzarekin, probaren aurreko eta ondorengo informazio guztia EMF/MEKFN web orri ofizialean etengabe eguneratzeaz arduratuko da, eta antolatzailea arduratuko da informazio hori bere euskarri digitaletan eguneratzeaz.

## ARBITRAJEA

- Arbitro ofizialekin arbitrajea egin beharko da proba guztietan.
- Arbitroen ostatu eta mantenu gastuak lasterketak ordainduko ditu.
- Proposamenak bidaltzen dituzten antolatzaileek dagokien lurralde-federazioko Mendiko Lasterketen Erregelamendu Ofiziala ezagutu eta onartu behar dute oso-oso. Erregelamendu hori beste batzuen gainetik egongo da karrera bera beste zirkuitu batzuetarako puntuagarria bada (kasu hori Euskadiko probintzia-

federazioekin eta maila baxuagoko beste edozein zirkuiturekin aplikatuko da). Salbuespen justifikatuak baloratzen ahalko dira, Karrera Batzordearen oniritziarekin eta gure konfiantzako arbitroen laguntzarekin.

- Antolatzaileek badakite eta onartzen dute EMF/MEKFN erakundeen babesle ofizial batzuk daudela, baina horrek EZ du oztopoa izan behar antolatzaileek beste babesle batzuk izateko beren proban. Deialdi hau idazterakoan, hauek dira babesle ofizialak: TERNUA – ADARTIA - SCARPA- LORPEN- HELVETIA. Ez da baztertzen etorkizunean marka babesle berriak sartzea; horiek ofizialki jakinaraziko zaizkie hautatutako antolatzaileei. Antolatzaileek espazioak utzi beharko dizkiote EMF-ri irteeran, helmugan eta podiumean, bere babeslearentzat eta EMF-ren logoentzat.
- EHK-ren Mendiko Lasterketen Egutegi Ofizialean parte hartzeko hautatutako proben antolatzaileek konpromisoa hartuko dute MEKFN/EMF-k batera deituko duten antolatzaileen bilerara joateko. Bilera horretan, probaren, araudiaren, jarduera-protokoloen, zalantzak argitzearen eta abarren gai espezifiko guztiak jorratuko dira.
- Antolatzaileek lege-kontratu bat sinatuko dute EMF/MEKFN-ekin, eta bertan jasoko dira eskubideak eta betebeharrak, publizitateari, protokoloari, araudiari eta abarri buruzko alderdiak eta Mendiko Lasterketen Erregelamendu Ofizialean ageri ez diren eta harekin zuzenean lotuta dauden beste puntu batzuk.

## HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

EMF/MEKFN-ren Mendiko Lasterketen Egutegi Ofiziala osatuko duten probak hautatzeko aukeren artean, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Lehenik eta behin EMF/MEKFN-k homologatutako proba izatea.
- Kontuan hartuko da proben eta antolatzaileen antolaketaren historia ona.
- Egutegiko proben txandaketa kontuan hartuko da proba berriak egiteari aukera emaneko.
- Banaketa geografikoa kontuan hartuko da.

Honekin batera doa proba EHK-ren 2025. urteko Mendiko Lasterketen Egutegi Ofizialean sartzeko eskabide-orria.



\*Eskabideak bidaltzeko posta elektronikoa:  
[zuzendaritza@emf.eus](mailto:zuzendaritza@emf.eus)

## **EMF-ri ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA 2024KO irailaren 30ean BUKATUKO DA**

### ESKABIDEA

- 2025KO EUSKAL HERRIKO LINEA LASTERKETETAKO KOPA
- 2025KO EUSKAL HERRIKO ULTREN KOPA
- 2025KO EUSKAL HERRIKO LASTERKETA BERTIKALEN KOPA
- Probaren izena:
- Klub antolatzailea:
- Probaren Zuzendaria:
- Proba egiteko zonaldea:
- Herria:
- Lurraldea:
- Distantzia kilometrotan:
- Desnibel positiboa eta negatiboa:
- Data:
- Ordezko data:
- Erabiltzen duten izen-emateen plataforma:
- Harremanetarako telefonoa:
- Posta elektronikoa:
- Posta helbidea:
- Lasterketaren webgunea: